

EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZA POLITIKAZ EAJ- PNV/EAK AURKEZTUTAKO MOZIOA

AURKEZTEKO ARRAZOIAK

1.-Anoetako Udalaren ustez, euskararen normalizaziorako egindako bidearen balantzea positiboa da.

Euskal Autonomia Erkidegoan indar eta tresna ugari jarri da euskararen alde, lege-araudia, erakunde publikoak, aurrekontu publikoak, plangintzak edota gizarte-ekimena bera ere, tresna horietako bat Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia delarik. Denen artean eginiko ahaleginari esker, aurrerapen galantak egin ditu euskarak, hezkuntzan, hedabideetan eta administrazioan, batik bat. Asko da egindakoa, aurretik inoiz egin izan ez dena; unean-unean egin beharrekoa egin da, alegia. Euskarari eman nahi zaion status juridikoa eta euskararen normalizaziorako landu diren hizkuntza politikak egokiak izan dira, eta horren lekuko ditugu emaitzak: orain lehen baino gehiago egiten da euskaraz, eta lehen egiten ez zen tokietan ere egiten da.

2.- Euskararen etorkizunaz baikorrak izateko arrazoi ugari izanda ere, ezin da euskararen geroa bermatutzat jo.

Batetik, euskararen gaur egungo egoera desberdina da euskaraz hitz egiten den hiru eremuetan. Eremu bakoitzean ordenamendu juridiko desberdin bat dago indarrean, eta bakoitzak euskarari aitortzen dion status juridiko desberdinen ondorioz, hizkuntza politika desberdinak bideratu dira azken urteotan.

Bestetik, euskararen ezagutzaren eta erabileraren arteko jauzia handia da orokorrean, eta batez ere esparru ez formaletan, hau da, lagunartean, aisialdian edo familian. Egin zitekeen guztia egin dugulako sentazioa albo batera utzi eta orain arteko joera positiboa indartu behar dugu, hortaz, ezarri beharreko neurri berriak ezarriz eta zuzendu beharrekoak zuzenduz, erabileran eragiten duten baldintzak aintzat harturik.

3.- Une honetako benetako erronka euskararen erabilera zabaltzea da.

Erronka horri modu egokian aurre egiteko, hizkuntza politika integratzaile eta malgu bezain indar-berritzailea behar da batetik, eta dagozkion neurriak, aurrekontuak, baliabideak eta elkarlana eskuratu, bestetik.

Gauzak horrela, Anoetako Udalak honako hau erabakitzen du:

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza politikaren irizpide nagusiekin bat egitea

- ♣ Anoetako Udalak, euskal hiritarren hizkuntza eskubideak betetze aldera, hizkuntza ahularen aldeko ekintza positiboa egiten jarraituko du.
- ♣ Hiritarren gehiengoak onartutako plangintzak garatzeko konpromisoa berresten du (hiritarren borondatea).
- ♣ Udalaren jarduna udalerriko eragileen jardunaz osatuko da elkarlanean.

2.- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) garatu eta eten gabe egokitzeko konpromisoa hartzea / berrestea

- ♣ Anoetako Udalak euskararen ezagutza, erabilera eta kalitatea areagotu eta hobetzen jarraitzeko dagozkion neurriak hartu edota egokituko ditu, udal barruko zein udalerrirako. Udal barruan, euskararen erabilera planean oinarrituta, udal zerbitzuak, ahozkoak nahiz idatzizkoak, euskaraz emango direla ziurtatu beharko da batetik, eta euskaraz lan egiteko (agiriak euskaraz sortzeko), atal elebidunak sortuko dira bestetik. Udalerriko arlo desberdinetan –aisialdian, kirolean, merkataritzan edo enpresetan dela-, euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko neurriak indartuko dira.
- ♣ Anoetako Udalak neurri horiek garatzeko beharrezkoak diren diru baliabideak eta giza baliabideak sortu edota sendotuko ditu, planak irauten duen urtealdirako.
- ♣ Planari ahalik eta etekinik handiena ateratzeko beharrezkoa da, bestalde, Anoetako udalerriko gizarte-eragileen iritzia jasotzea; hori dela eta, planaren esparru desberdinetan eragile diren kideez osaturiko aholkularitza organoa sustatuko da (Euskara Aholku Batzordea), egokitu edota garatzerakoan ekarpenak egin ditzan.